ENPRESEN EGOERA

Salmentak, kanpo merkataritza, enplegua eta soldatak

HILEROKO TXOSTENA

➢ **Maiatza 2026**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

AURKEZPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak estatistikako azterlanak prestatu ohi ditu Gipuzkoako enpresen salmentei, kanpo merkataritzari, enpleguari eta soldatei buruz, Gipuzkoako enpresen eta ekonomiaren bilakaerari buruzko informazio eguneratua eskuratze aldera.

Informazio hau oso tresna interesgarria da departamentuaren eta Foru Aldundiaren jarduketa bideratzeko, eta, interes orokorrekoa denez, Gipuzkoako gizartearen esku jartzen da argitalpen honen bidez.

Argitalpen honetako informazioa lortzeko, erabili dira **Gipuzkoan sozietate egoitza** duten **enpresa EZ finantzarioek** hilero aurkezten dituzten **aitorpenak:** Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta lanaren, jarduera ekonomikoen eta sarien etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak**.**

Normalean, informazio hau hilero argitaratzen da; dena den, uztaila eta abuztuko datuen analisia batera egiten da; izan ere, uztaileko aitorpen-likidazioa aurkezteko epea, udara dela-eta, hilabete luzatzen da, irailaren 25eraino.

Eranskinaren hasieran dagoen oharrean aipatzen den bezala, metatutako epealdietako (hiruhilekoak, urtekoak…) bariazioak kalkulatzerakoan populazio konstantearen irizpidea erabili ordez, batez besteko ponderatuaren irizpidea erabiltzen da.

EZAUGARRI NAGUSIAK

➢ 2026ko lehen bost hilabeteetan Gipuzkoako enpresek salmentak +%1,8 igo dira. Gorakada hori barruko salmenten +%4,9ko igoeraren ondorioa izan da; izan ere, esportazioak -%3,7 jaitsi dira 2025eko epealdi berdinarekin alderatuta.

➢ Maiatzean salmenta osoak +%6,7 hazi dira, eta bere bi osagaiek ere portaera positiboa izan dute: barruko salmentak +%7,4 eta esportazioak +%5,5.

➢ Lan merkatuan, Gipuzkoako enpresetako lan etekinen jasotzaileen kopurua +%0,6 hazi da maiatzean eta +%0,7 urteko lehen bost hilabete hauetan. Ordaindutako soldatetan igoera, berriz, askoz handiagoa izan da: +%5,1 maiatzean eta +%4,8 lehen bost hilabete hauetan.

1. taula - GIPUZKOAKO ENPRESEN ADIERAZLE NAGUSIAK
(Urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Maiatza	Δ% Urtarril-Maiatza
Salmenta osoak	**6,7**	**1,8**
Barruko salmentak	7,4	4,9
Esportazioak	5,5	-3,7
Inportazioak	**3,6**	**3,4**
Enplegua	**0,6**	**0,7**
Soldatak	**5,1**	**4,8**

1 grafikoa – SALMENTAK
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTAK

➢ 2026ko lehen bost hilabeteetan salmentak hazi egin dira zerbitzuen sektorean (+%4,6) eta eraikuntzan (+%1,0), eta, aldiz, zertxobait jaitsi dira industrian (-%0,4)

Salmenta osoen igoera orokorra (+%1,8) zerbitzuetan (%4,6) izandako bilakaera onaren ondorioa da, eta neurri txikiagoan eraikuntzan (+%1,0) izandakoagatik; izan ere, industrian salmentak, gutxi bada ere, jaitsi egin dira (-%0,4).

Maiatzean portaera oso positiboa izan da industrian (+%10,1) eta zerbitzuetan (+%4,9), eta, aldiz, nabarmen egin dute behera eraikuntzan (-%13,4).

2 taula - SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTA OSOAK(urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Maiatza	Δ% Urtarril-Maiatza
Salmenta osoak	6,7	1,8
▪ Industria	10,1	-0,4
▪ Eraikuntza	-13,4	1,0
▪ Zerbitzuak	4,9	4,6

2 grafikoa – SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTA OSOAK
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK

➢ 2026ko lehen bost hilabete hauetan Gipuzkoako enpresen esportazioak -%3,7 jaitsi dira

Gipuzkoako enpresen esportazioak -%3,7 jaitsi dira 2026ko lehen bost hilabete hauetan, 2025eko epealdi berdinarekin alderatuta. Kanpoko salmenta horien norakoaren araberako azterketak erakusten du EBrako esportazioak +%7,3 hazi diren bitartean, gainerako herrialdeetarako salmentak, berriz, -%16,2 jaitsi direla.

Inportazioak, berriz, +%3,4 igo dira bost hilabete hauetan. Eta erosketa horien jatorriari dagokionez, -%0,9ko jaitsiera bat ikusten da EBtik datozen erosketetan; eta, EBtik kanpoko herrialdeetatik datozen inportazioak, aldiz, +%15,1 igo dira.

3. taula – ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Maiatza	Δ% Urtarril-Maiatza
Esportazioak	**5,5**	**-3,7**
• Europar Batasuna	11,4	7,3
• Munduko gainerako herrialdeak	-2,0	-16,2
Inportazioak	**3,6**	**3,4**
• Europar Batasuna	1,2	-0,9
• Munduko gainerako herrialdeak	9,6	15,1

3. grafikoa - ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA

➢ 2026ko lehen bost hilabeteetan Gipuzkoako enpresetan lan egiten duten pertsona kopurua +%0,7 igo da

Azken hilabeteetan nolabaiteko moteltzea ikusten bada ere, Gipuzkoako lan merkatua indartsu mantentzen da. Horrela, 2026ko lehen bost hilabeteetan Gipuzkoako enpresetan lan egiten duten pertsona kopurua +%0,7 igo da.

Datuak sektoreka aztertuz gero, ikusten da hazkunderik handiena eraikuntzan eman dela (+%1,0), industrian igoera +%0,9koa izan dela, eta zerbitzuetan, berriz, +%0,4.

4. taula – SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Maiatza	Δ% Urtarril-Maiatza
Enplegu osoa	**0,6**	**0,7**
▪ Industria	1,4	0,9
▪ Eraikuntza	0,9	1,0
▪ Zerbitzuak	-0,3	0,4

4. grafikoa - SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

➢ 2026ko lehen bost hilabeteetan Gipuzkoako enpresek ordaindutako soldatak +%4,8 igo dira

Soldaten igoera +%4,8koa izan da 2026ko lehen bost hilabete hauetan. Sektorekako bilakaerari dagokionez, igoerarik handiena zerbitzuetan ikusten da (+%5,8); industrian, berriz, igoera +%4,2koa izan da eta eraikuntzan +%5,5ekoa.

Epealdi honetan, enpleguak (+%0,7) soldatek (+%4,8) baino askoz gutxiago egin du gora; beraz, langile bakoitzeko batez besteko ordainsariak %4,1 egin du gora. Industrian enplegua %0,9 igo da eta soldatak %4,2 hazi dira; beraz, batez besteko ordainsaria %3,3 igo da. Eraikuntzan enplegua +%1,0 igo da eta soldatak +%5,5 igo; beraz, batez besteko ordainsaria %4,5 igo da. Zerbitzuen sektorean, enpleguak +%0,4 egin du gora, eta soldatak, berriz, gehiago igo dira (+%5,8); beraz, batez besteko ordainsariak %5,4 egin du gora.

5. taula – SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Maiatza	Δ% Urtarril-Maiatza
Soldata osoak	5,1	4,8
• Industria	5,2	4,2
• Eraikuntza	6,8	5,5
• Zerbitzuak	4,9	5,8

5. grafikoa – SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK, KANPO MERKATARITZA, ENPLEGUA ETA SOLDATAK

Estatistiken eranskina

Oharra.

Eranskin honetan hileroko bariazio tasak ematerakoan populazio konstantearen irizpidea erabili da. Hau da, bariazio tasa kalkulatu da bi urtez jarraian hilabete berean aitortzen duten enpresekin. Populazio konstantearen araberako bariazio tasa horiek sektoreen koiuntura erakusten dute, eta bariazio demografikoek ez diete eragin. Populazio konstantea definitzen den moduari esker, ez da beharrezkoa erregistratu gabeko datuak egoztea.

Aldiz, hiruhileko, urteko eta epealdi metatuei dagozkion bariazioak kalkulatzeko batez besteko ponderatuak erabili dira.

1. taula - SALMENTA OSOAK: BARRUKO SALMENTAK ETA ESPORTAZIOAK

Epealdia		Salmenta osoak	Barruko salmentak	Esportazioak
2006		7,1	6,6	8,4
2007		7,1	6,1	10,0
2008		0,0	-1,5	4,6
2009		-20,5	-20,2	-21,6
2010		2,1	-4,6	21,6
2011		0,5	-5,0	12,8
2012		-5,1	-8,0	0,4
2013		-3,6	-5,4	-0,5
2014		3,3	3,3	3,2
2015		4,9	3,0	8,2
2016		0,4	1,7	-1,8
2017		7,5	9,5	4,1
2018		6,6	5,8	8,0
2019		2,8	2,5	3,4
2020		-10,1	-9,1	-11,9
2021		16,8	15,8	18,7
2022		13,2	12,3	15,0
2023		2,9	4,2	0,8
2024		0,7	1,7	-1,0
2025		3,5	3,4	3,5
2025	(1)	1,6	2,6	0,0
2026	(1)	1,8	4,9	-3,7
2025	I	7,2	7,3	6,9
	II	-2,6	-1,9	-3,7
	III	4,1	6,0	0,4
	IV	5,4	3,0	10,1
2026	I	-1,9	2,5	-9,4
2025	urtarrila	2,5	2,2	3,1
	otsaila	3,3	6,6	-1,7
	martxoa	15,0	12,8	18,7
	apirila	-7,1	-6,6	-7,9
	maiatza	-4,7	-0,8	-11,3
	ekaina	4,1	1,5	9,1
	uztaila	7,2	8,8	4,3
	abuztua	-2,5	-1,0	-5,6
	iraila	5,5	8,5	0,3
	urria	3,3	5,5	-0,6
	azaroa	5,9	2,8	11,8
	abendua	6,9	1,2	19,3
2026	urtarrila	-1,3	3,5	-9,9
	otsaila	-0,6	1,2	-3,7
	martxoa	-3,6	2,8	-13,8
	apirila	8,4	9,9	5,7
	maiatza	6,7	7,4	5,5

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

2. taula - PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTAK

Epealdia		Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006		7,1	13,1	7,7	-1,6
2007		7,1	7,5	11,8	5,6
2008		0,0	1,8	10,5	-4,8
2009		-20,5	-25,1	-11,1	-14,8
2010		2,1	6,0	-21,8	2,1
2011		0,5	3,5	-21,6	0,3
2012		-5,1	-5,1	-25,3	-1,2
2013		-3,6	-4,1	-17,4	-0,4
2014		3,3	3,4	0,9	3,4
2015		4,9	5,4	-7,5	6,3
2016		0,4	-0,7	-5,4	2,9
2017		7,5	6,3	5,1	9,6
2018		6,6	6,5	0,7	7,4
2019		2,8	2,6	-2,0	4,0
2020		-10,1	-12,9	-14,7	-5,5
2021		16,8	21,6	-9,8	14,4
2022		13,2	14,0	11,2	12,5
2023		2,9	1,2	10,4	4,4
2024		0,7	0,0	-3,9	2,1
2025		3,5	3,3	4,4	3,5
2025	(1)	1,6	0,6	1,3	2,9
2026	(1)	1,8	-0,4	1,0	4,6
2025	I	7,2	7,5	2,3	7,1
	II	-2,6	-4,5	0,1	-0,4
	III	4,1	4,0	3,6	4,2
	IV	5,4	6,6	10,0	3,6
2026	I	-1,9	-6,2	2,2	3,2
2025	urtarrila	2,5	2,1	-8,3	4,1
	otsaila	3,3	1,3	7,5	5,6
	martxoa	15,0	18,6	6,7	11,3
	apirila	-7,1	-9,4	-9,1	-3,9
	maiatza	-4,7	-8,2	8,4	-1,5
	ekaina	4,1	4,2	0,7	4,3
	uztaila	7,2	6,3	9,5	8,1
	abuztua	-2,5	-2,8	-5,1	-1,9
	iraila	5,5	5,6	4,4	5,4
	urria	3,3	2,0	27,6	2,8
	azaroa	5,9	7,2	7,3	4,1
	abendua	6,9	10,2	1,1	3,8
2026	urtarrila	-1,3	-4,5	7,8	1,9
	otsaila	-0,6	-0,3	-9,5	0,1
	martxoa	-3,6	-12,4	9,4	6,9
	apirila	8,4	7,6	15,3	8,8
	maiatza	6,7	10,1	-13,4	4,9

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

3. taula – ESPORTAZIO ETA INPORTAZIOAK INGURUNE GEOGRAFIKOEN ARABERA

Epealdia	Esportazioak			Inportazioak		
	Guztira	EB	Besteak	Guztira	EB	Besteak
2006	8,4	6,3	11,7	11,9	10,4	17,4
2007	10,0	13,3	5,3	12,3	10,7	18,1
2008	4,6	4,2	5,3	0,0	-1,6	5,3
2009	-21,6	-27,1	-13,2	-37,4	-35,8	-42,2
2010	21,6	12,7	32,7	28,4	32,1	16,0
2011	12,8	20,3	4,8	11,0	12,5	5,3
2012	0,4	3,2	-3,1	-8,7	-8,6	-9,2
2013	-0,5	-1,5	0,7	-1,0	-1,2	-0,5
2014	3,2	10,1	-5,4	1,2	0,5	3,7
2015	8,2	6,0	11,4	11,3	10,3	15,5
2016	-1,8	5,7	-12,2	-5,6	-4,7	-8,5
2017	4,1	-2,6	15,1	14,0	13,0	17,7
2018	8,0	17,4	-5,3	10,5	8,4	18,6
2019	3,4	4,5	1,4	3,0	1,2	9,6
2020	-11,9	-12,9	-10,1	-13,5	-14,8	-9,2
2021	18,7	3,4	45,3	22,0	17,6	36,3
2022	15,0	14,3	15,8	21,5	16,8	34,3
2023	0,8	2,3	-1,0	-6,9	-2,4	-17,9
2024	-1,0	-4,0	2,7	0,5	0,1	1,7
2025	3,5	2,0	5,3	2,6	1,0	7,0
2025 (1)	0,0	-2,4	2,8	3,1	0,7	10,4
2026 (1)	-3,7	7,3	-16,2	3,4	-0,9	15,1
2025 I	6,9	1,2	13,6	8,9	4,8	22,0
II	-3,7	-2,5	-5,2	-4,0	-4,8	-1,6
III	0,4	4,8	-4,7	3,4	1,5	8,5
IV	10,1	4,9	15,7	2,6	2,9	1,8
2026 I	-9,4	4,6	-24,1	-0,7	-3,4	6,7
2025 urtarrila	3,1	-0,9	8,2	5,1	3,4	9,7
otsaila	-1,7	-6,3	3,5	6,6	-0,8	32,1
martxoa	18,7	10,5	27,7	14,7	11,4	26,0
apirila	-7,9	-6,8	-9,2	-9,4	-6,2	-17,7
maiatza	-11,3	-7,9	-15,2	0,0	-3,9	11,6
ekaina	9,1	8,0	10,6	-2,4	-4,2	3,4
uztaila	4,3	6,6	1,7	5,7	1,5	18,1
abuztua	-5,6	1,3	-12,9	-3,2	-4,0	-1,2
iraila	0,3	5,0	-5,6	5,7	5,0	7,6
urria	-0,6	2,4	-4,2	0,7	3,6	-6,7
azaroa	11,8	9,0	14,8	-0,6	-2,6	5,5
abendua	19,3	3,5	34,4	7,9	7,8	8,4
2026 urtarrila	-9,9	1,0	-22,9	-7,5	-11,7	3,1
otsaila	-3,7	7,6	-15,1	0,0	-1,0	2,7
martxoa	-13,8	5,2	-32,0	4,7	1,5	14,1
apirila	5,7	11,1	-1,3	16,4	4,6	50,5
maiatza	5,5	11,4	-2,0	3,6	1,2	9,6

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

4. taula- PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA

Epealdia		Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006		-0,2	-1,1	3,7	1,6
2007		1,8	0,9	5,3	3,7
2008		0,2	-1,1	0,2	4,2
2009		-6,1	-7,1	-1,1	-4,8
2010		-2,8	-3,0	-9,7	-0,6
2011		-0,7	-0,3	-11,6	0,5
2012		-3,1	-3,0	-11,2	-2,0
2013		-2,9	-3,3	-9,2	-1,0
2014		-0,7	-2,3	-4,1	2,9
2015		2,1	1,6	-5,6	3,5
2016		2,8	1,7	-7,9	5,5
2017		2,6	2,6	-3,6	3,1
2018		3,6	3,0	3,1	4,5
2019		2,2	2,0	1,2	2,6
2020		-2,2	-2,0	-4,6	-2,3
2021		1,1	0,1	-1,8	2,6
2022		2,0	1,7	-1,1	2,5
2023		1,4	1,3	-2,1	1,7
2024		1,7	2,1	-0,9	1,3
2025		0,3	0,8	0,9	-0,2
2025	(1)	0,7	0,9	1,2	0,4
2026	(1)	0,7	0,9	1,0	0,4
2025	I	1,0	1,0	1,3	0,9
	II	0,2	0,7	0,3	-0,5
	III	0,5	0,9	0,7	0,0
	IV	-0,3	0,6	1,4	-1,3
2026	I	0,7	0,8	1,1	0,6
2025	urtarrila	0,9	0,6	1,4	1,3
	otsaila	1,5	1,5	1,4	1,5
	martxoa	0,5	0,8	1,2	0,0
	apirila	0,0	0,5	1,1	-0,8
	maiatza	0,4	0,9	0,9	-0,1
	ekaina	0,1	0,7	-1,1	-0,5
	uztaila	0,9	0,9	-0,2	1,0
	abuztua	0,4	0,9	0,2	-0,1
	iraila	0,2	1,0	2,1	-0,9
	urria	0,2	0,7	2,3	-0,6
	azaroa	-0,4	0,6	1,4	-1,7
	abendua	-0,5	0,5	0,3	-1,7
2026	urtarrila	0,7	0,8	2,0	0,6
	otsaila	0,6	0,5	1,1	0,8
	martxoa	0,7	1,0	0,4	0,3
	apirila	0,7	0,8	0,5	0,6
	maiatza	0,6	1,4	0,9	-0,3

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

5. taula – PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	4,1	2,8	7,8	7,7
2007	5,9	5,2	10,0	6,9
2008	5,1	3,5	5,0	10,7
2009	-5,3	-6,8	1,0	-2,9
2010	-1,3	-0,8	-9,4	-0,2
2011	2,5	4,0	-11,5	1,8
2012	-2,4	-2,1	-12,7	-0,9
2013	-1,5	-1,2	-9,4	-0,7
2014	-0,1	-0,5	-4,2	1,6
2015	2,1	2,0	-3,3	3,1
2016	2,5	1,9	-8,8	5,2
2017	4,1	4,2	-5,1	4,6
2018	4,6	4,1	6,4	5,3
2019	3,7	3,0	3,7	5,1
2020	-3,0	-3,4	-2,9	-2,3
2021	4,3	4,0	-0,3	5,4
2022	6,5	6,6	4,5	6,5
2023	6,9	6,7	4,1	7,5
2024	6,7	7,2	2,7	6,3
2025	4,8	5,0	5,0	4,4
2025 (1)	5,2	5,4	5,1	4,9
2026 (1)	4,8	4,2	5,5	5,8
2025 I	6,1	6,4	4,6	5,7
II	4,6	4,4	5,2	4,7
III	4,6	4,3	6,6	5,0
IV	4,2	5,1	3,7	2,6
2026 I	4,7	4,2	6,7	5,5
2025 urtarrila	5,7	5,5	2,7	6,2
otsaila	6,8	7,6	3,7	5,6
martxoa	5,9	6,1	6,9	5,4
apirila	2,9	2,2	11,5	3,3
maiatza	5,0	5,7	0,9	4,3
ekaina	5,6	5,3	4,1	6,3
uztaila	4,1	3,5	4,1	5,4
abuztua	4,7	5,1	4,4	4,2
iraila	5,2	4,9	11,9	5,2
urria	2,9	3,0	4,2	2,7
azaroa	2,8	4,4	2,4	0,3
abendua	5,6	6,7	4,2	3,9
2026 urtarrila	5,9	5,0	2,9	7,6
otsaila	4,4	3,2	7,0	6,1
martxoa	4,0	4,2	9,5	3,2
apirila	4,8	3,3	0,6	7,3
maiatza	5,1	5,2	6,8	4,9

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak — Urtearteko bariazio tasak ehunekotan